

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Laudio

Aurkibidea

Udalerria: Laudio

Sarrera



Arabako ipar-mendebaldeko herria, Aiaraldea eskualde edo kuadrilakoa. Abeltzaintza zen herritarren ogibide nagusia, 60ko hamarkadara arte. Garai hartan biztanle kopurua izugarri hazi zen, industrializazioaren eraginez. Arabako beste herri batzuetan bezalaxe, bertako euskara XIX. mendearen bukaeran galdu zen. Hori bai, euskara berreskuratzeko prozesuari esker, 2010ean laudioarren laurdena zen euskalduna.

Argazkia: Wikimedia, [Zarateman](#)

- **Biztanleak:** 18.303
- **Euskaldunak:** %25,59

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **29**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **29**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Juan Jose Ibarretxe Markuartu (1957)



Laudioko Berrio baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen. Amaren familia, berriz, Lezamatik Galiziara desterratu zuten, gerra sasoian, eta ama 20 bat urterekin bueltatu zen Arabara. Herriko eskola publikoan ikasi zuen umetan, eta ondoren Ekonomia ikasketak egin zituen EHU. Ibarretxe politikari ezaguna da: EAEko lehendakaria izan zen 1999tik 2009ra bitartean. EAJ alderdikoa, 1979an hasi zen politikagintzan: Laudioko alkate izan zen eta baita Arabako Batzar Nagusietako batzarkide, Eusko Legebiltzarreko kide eta EAEko lehendakariorde ere. Elkarriketatu genuenean ALC Agirre Lehendakaria Centerreko burua zen. Elkarriketan bereiziki bere haurtzaroaz hitz egin zigun, gaztaroko oroitzapenez eta euskara ikasteko prozesuaz.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Juan Jose Ibarretxeren jaiotetxea eta beste (LAU-001/002)

1957.urtea jaio zen ama zuenaren baserrian. Laudion, familiak alokatua zuen baserrian. "Berrio" izenekoa eta Orozkorekin muga egiten zuen.

2. Ama eta aitaren familia kontuak (LAU-001/003)

Ama lezamarra zuen eta gerra garaian Galiziara desterratua izan zen. Aita Laudiokoa zen. Ibarretxe abizena Zaratamokoa da.

3. Gerra garaiko aita eta amaren ezbeharrak (LAU-001/004)

Gerra garaian familiak ezbeharrak pasa zituen: osabak eta aitona hil ziren besteak beste.

4. Arrebarekin lehenengo urteak baserrian (LAU-001/005)

"La Escuela de la abuela" deiturikoan hasi, gero eskola nazionalera, institutura, eta azkenik Euskal Herriko Unibertsitatean beka bati esker "Económicas" ikasten amaitu zuen. Bere lehendabiziko lana: kontable.

5. "La escuela de la abuela"ren berri (LAU-001/006)

Bertako irakasleari "abuela" deitzen zioten. Auzokide bat zen eta bere etxean ematen zituen eskolak. 2 eta 4 urte bitarteko haurrak joaten ziren.

6. "Berrio" baserriko oroitzapenak (LAU-001/007)

Baserrian hilabeteen bitan ogia egiten zuten eta bakailao tortila, hamaiketakoan jaten gogoratzen du. Idiak ikaragarri handiak iruditzen zitzaizkiola ere bai.

7. Amama eta aititekin harremana (LAU-001/008)

Amaren aldekoekin aitita-amamekin harreman estuagoa izan zuen aitaren aldekoekin baino.

8. Baserrian aitita-amamekin egiten zituenak (LAU-001/009)

Aitonak baserriko lana oso gogorra zela esaten zion eta amonak, berriz, sukaldatzen eta elikadura zeinen garrantzitsua den erakutsi zizkion.

9. Ezkondu eta emaztearen baserrian otorduak prestatzen (LAU-001/010)

Amaginarreba kezkatua zegoen zer egiten ote zekien oso garbi ikusten ez zuelako. Sukaldatzen zekiela esan zion, eta denak oso gustura jaten zituzten berak prestatutakoak.

10. Sukaldatzen dituenak (LAU-001/011)

Baratxuri zopa, indabak, arkume errea... prestatzen ditu: "sota, caballo, rey"

11. 60. hamarkada hasierako eskola (LAU-001/012)

Bost urtetan zehar irakasle berdina, ikasle berdina eta liburu berdina izan zituen. Irakasleak Don José izena zuen eta makila erabiltzen bazuen ere, ez zen gogorrenetakoa.

12. Espainia Francoren garaiko eskolako protagonista (LAU-001/013)

Eskolan ez ezik unibertsitatean ere dena gaztelaniaz zen. Hala ere, euskara ikasteko antolatu ziren.

13. Euskara ikasi behar zuela oso garbi zuen (LAU-001/014)

Ezin zuen onartu euskararik hitz egiten ez zuen Erkidegoko lehendakariarik. Egunero bi orduz eskolak hartzen hasi zen eta ondoren ikastaro trinkoak egiten. Gogor jardun ondoren, barruko sentimenduak euskaraz adieraztea lortu zuen.

14. Pasioa behar da ikasteko (LAU-001/015)

"Loro viejo no aprende a hablar" ez da egia!!

15. Pasioa politikan giltza da (LAU-001/016)

Politika pasioa da, gauzak egiteko kanalizatua dagoena. Bokazionala da.

16. Nondik datorkion politikarenganako pasioa (LAU-001/017)

Familiaren egoera konplikatuak eraman zuen politikara. "Ley de Silencio" delakoa ezagutu zuen familian eta gizartean. Horrek politikara hurbiltzen lagundu zion.

17. Trantsizioko urteak erromantizismo handikoak izan ziren (LAU-001/018)

Gogo handiko jendea zegoen trantsizioko garai hartan, dena lortu ez bazen ere.

18. Laudiok aldaketa handiak denbora gutxian (LAU-001/019)

Laudion 50. hamarkadan 4.000 pertsona izatetik, hamar urte bete zituenerako 20.000 izatera iritsi ziren. Ez zegoen inolako azpiegiturarik.

19. Igeri egiten ikasten ari da orain (LAU-001/020)

Artrosiarentzan ona dela eta, orain dela urtebete hasi zen igeri egiten ikasten. Horrelako zerbait bere gazte denboran pentsaezina zen Laudion.

20. Modu naturalean bizi zen Laudiora jende andana iristea (LAU-001/021)

Elkartasunik gabe ez ginateke herria izango. Espainiak eta Frantziak diotenaz haratago.

21. Elkarbizitzan dago gakoa euskal identitate eta kulturean (LAU-001/022)

Gure identitatea eta kultura oso garrantzitsuak dira, baina ezin dira konfrontazioan oinarritu.

22. Hautzaro garaian euskararik ez zen apenas entzuten Laudion (LAU-001/023)

Egun euskara eredu da beste hizkuntza gutxituentzat. Francoren garaian pentsaezina zenera iritsi gara. Egi bihurturiko miraria da.

23. Ikastolen hasiera latza (LAU-001/024)

Beraien haurrak lehendabiziko ikastoletara bidali zituzten gurasoak oso ausartak izan ziren. Titulu ofizialik ez, jarraipen sagurtasunik ez... Hori bai izan zela berritzaile izatea!!

24. 30. hamarkadan baserrian eta enpresan bietan lana (LAU-001/026)

Aitak baserrian eta fabrian lana egiten zuen, amaren familiako gizonak ere bai, eta emakumeak 24 orduz lanean. Oporrak ez ziren ezagutzen.

25. Elkartasuna, auzolanerako beti prest (LAU-001/027)

Liskarren gainetik auzolana garaile zen. Nahiz eta bizilagunarekin hitzik partekatu ez, laguntza behar zuenean eman egiten zitzaion.

26. Kontzeju irekiak hiru hilabete behin mezetatik irtendakoan (LAU-001/028)

Araban oso ospetsuak ziren kontzejuak, beraietan auzokideak elkartzen ziren gai desberdinak eztabaidatzeko.

27. Ateak zabalik egoten ziren garaia (LAU-001/029)

Baserriko ateko giltza etxean gordeta egoten zen. Atean tranka bat besterik ez zen egoten, haizeak ez irekitzeko.

28. Egun, gizartea indibidualistagoa da (LAU-001/030)

Herrigintza era galdu daiteke indibidualismoaren eraginez. "Hartu-eman" oso hitz polita dela iruditzen zaio. Eta baserriko kulturatik datorrela.

29. Parlamentuan azken hitzaldia (LAU-001/032)

Berdintasuna aldarrikatzen saiatu zen. Nahiz eta lehendakaria izan, berdinen artean aukeratua izan zela esaten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com